

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **Baliabide fisikoak:** Baliabide fisiko bezala, instalazio aldetik gure aplikazioaren kontrola eramango duten pertsonen lanerako bulegoak eta ordenagailuak beharko dituzte besteak beste. Ondorioz, sistema informatiko bat ere beharrezkoa izango dugu. Bestalde, autobus geltokietan instalatuko diren pantailak jarri eta gainbegiratzeko ibilgailuak eta langile gehiago beharko dira. Azkenik, gure aplikazioa sistema informatiko bat da, eta hori sortu egin beharko dugu.
- **Baliabide intelektualak:** Baliabide intelektualei dagokienez, patentea daukagu; gure aplikazioa sorkuntza berri bat delako. Beraz, egile-eskubideak ere izango ditugu. Gainera, elkarteak ditugu, izan ere, aliantza bat sortu dugu gure lurraldeko garraio publikoaren enprekin. Azkenik, datu-base bat izango dugu, gure proiektu-proposamena mugikorrerako aplikazio bat delako et ahobekuntzak egiteko orduan informazioa biltegirako beharko dugulako.
- **Giza baliabideak:** Giza baliabideen aldetik, sormena eta ezagutza duen jendea beharko dugu aplikazioa sortzeko. Alde batetik aplikazioa sortzen jakin beharko dute, eta bestalde, aplikazioak diseinu erakargarria izango duela zihurtatu behar dugu.
- **Finantza-baliabideak:** Eskudirua kantitate txikian lortuko da, izan ere, kostu eta diru-sarreraren arteko aldea oso txikia izango da.

